

PDF 6

BEZEROEKIKO HARREMANAK:

Bezeroak gure proposamenari lotuta egon daitezzen, behar duten arreta eskainiko diegu. Arazoren bat egon ezkeru beti izango da lankide bat kiroldegiko sarreran, bezeroek dituzten galderak, kezkak edota arazoak konpontzeko.

Gainera, kiroldegira lehen aldiz etortzen diren bezeroei, gida bat eskeiniko zaie kiroldegiak dituen arauak azaltzen eta baita kiroldegiak antolatzen dituen ekintzak azaltzeko (Informazio hau, webgunean ere egongo da). Bertan, gure kiroldegia, kiroldegi ohikoen egitura jarraitzen duenetariko ez denez, hilabetean ordaindu beharreko kuota, egindako kirol kantitatearen arabera jaisteko aukera izango dutela adieraziko zaie.

Horrez gain, gure kiroldegiak energia sortzen ez duten makinak, hala nola, pesak eta arrauneko makinak ere izango ditu.

Gure kiroldegian parte hartzeko bezeroa egin behar zara, gure webgunean bezeroa egiteko pausuak adierazten ditugu, eta bertan dugu esteka datu guztiak bete ondoren, gure kiroldegiaren kide bat gehiago izateko.

Bezeroa egin ondoren, bezeroak beti izango dute ahalmena nahi dutenean kiroldegia erabiltzeko. Txartel bat izango dute eta egutegia errespetatu ezkeru ateak beti egongo dira zabalik, gure instalakuntzak erabiltzeko.